Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkargo Ofiziala

CIIB

Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Bizkaia

Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkartea

AIIB

Asociación de Ingenieros Industriales de Bizkaia



# Urteko Memoria 2019

# AURKIBIDEA

Orr.


1. KUDEAKETA EKONOMIKOAREN URTEKO TXOSTENA . . . 4

2. ELKARGOKIDETZEA ETA KUOTAK . . . . . . 6

3. PROZEDURA INFORMATZAILEAK ETA ZIGORTZAILEAK . . . 9

4. ERABILTZAILEEK AURKEZTUTAKO KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK . 9

5. KODE DEONTOLOGIKOA . . . . . . 9

6. GOBERNU BATZORDEA: BATERAEZINTASUNAK . . . . 9

7. KALITATE ETA INGURUMEN SISTEMA INTEGRATUA . . 10

8. ARLO PROFESIONALA . . . . . . . 10

8.1. LAN PROFESIONALEN TRAMITAZIOA . . . . 10

8.2. ERANTZUKIZUN ZIBIL ETA PROFESIONALEKO ASEGURUA . . 12

8.3. AHOLKULARITZA ETA LANBIDEAREN BABESA . . . . 13

8.4. ARAUDIA ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOA . . . . 14

8.5. ENPLEGURAKO JARDUERAK . . . . . . 15

8.6. PRESTAKUNTZA JARDUERAK . . . . . . 17

9. GIZARTE EKINTZA . . . . . . . . 21

9.1. INGENIARITZAKO MUTUALITATEA. . . . . . . 21

9.2. KULTURA ETA GIZARTE EKINTZA . . . . . . . 22

9.3. ELKARTASUNA: IC-LI –Lankidetzarako Ingeniaritza . . . . 22

9.4. EUSKAL KULTURA . . . . . . . . 23

9.5. BGAE . . . . . . . . . 26

9.6. DYNA ALDIZKARIA . . . . . . . 26

10. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIO SISTEMAK . . . . . 28

11. HARREMAN ETA JARDUERA INSTITUZIONALAK . . . . . 30

ERANSKINAK

I – Prestakuntza Ekintzen Zerrenda

II – Kultura Eta Gizarte Ekintzako Xehetasuna

**CUENTAS DE RESULTADOS COMBINADAS CORRESPONDIENTES A LOS EJERCICIOS ANUALES TERMINADOS EL 31 DE DICIEMBRE DE 2019 Y 2018**

(Euros)

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| **EXCEDENTE DEL EJERCICIO:** | | |
| Ingresos de la actividad propia- | | |
| Cuotas de asociados y afiliados (Nota 20) | 290.134 | 283.816 |
| Aportaciones de usuarios (Nota 20) | 294.293 | 284.062 |
| Subvenciones imputadas al excedente del ejercicio (Nota 16) | 11.163 | 6.887 |
| | 595.590 | 574.765 |
| Ventas y otros ingresos de la actividad mercantil (Nota 20) | 377.992 | 407.685 |
| Otros ingresos de la actividad (Nota 8) | 130.225 | 162.441 |
| Gastos de personal- | | |
| Sueldos, salarios y asimilados | (454.443) | (373.058) |
| Cargas sociales (Nota 20) | (100.992) | (90.438) |
| | (555.435) | (463.496) |
| Otros gastos de la actividad- | | |
| Servicios exteriores | (566.620) | (533.831) |
| Tributos (Nota 18) | (45.384) | (48.672) |
| Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales (Nota 9) | (4.363) | (1.125) |
| | (616.367) | (583.628) |
| Amortización del inmovilizado (Notas 5, 6 y 7) | (122.217) | (116.958) |
| Subvenciones, donaciones y legados de capital traspasadas al excedente del ejercicio (Nota 16) | 60 | 1.740 |
| **EXCEDENTE DE LA ACTIVIDAD** | **(190.152)** | **(17.451)** |
| Ingresos financieros- | | |
| De valores negociables y otros instrumentos financieros- | | |
| De terceros (Notas 9 y 11) | - | 226 |
| Gastos financieros- | | |
| Por deudas con terceros (Nota 9) | (4.951) | (4.639) |
| Variación de valor razonable en instrumentos financieros (Nota 9)- | | |
| Cartera de negociación y otros (Nota 11) | 135.890 | (147.954) |
| Deterioro y resultado por enajenaciones de instrumentos financieros- | | |
| Resultados por enajenación y otras (Notas 9 y 11) | (12.639) | 20.424 |
| **EXCEDENTE DE LAS OPERACIONES FINANCIERAS** | **118.300** | **(131.943)** |
| **EXCEDENTE ANTES DE IMPUESTOS** | **(71.852)** | **(149.394)** |
| Impuestos sobre beneficios (Nota 18) | - | - |
| **EXCEDENTE DEL EJERCICIO PROCEDENTE DE OPERACIONES CONTINUADAS** | **(71.852)** | **(149.394)** |
| **VARIACIÓN DE PATRIMONIO NETO RECONOCIDA EN EL EXCEDENTE DEL EJERCICIO** | **(71.852)** | **(149.394)** |
| | | |
| **Reclasificaciones al excedente del ejercicio:** | | |
| Subvenciones recibidas (Nota 16) | (60) | (1.740) |
| **Variación de patrimonio neto por reclasificaciones al excedente del ejercicio** | **(60)** | **(1.740)** |
| **Variaciones del patrimonio neto por ingresos y gastos imputados directamente al patrimonio neto** | **(60)** | **(1.740)** |
| **RESULTADO TOTAL, VARIACIÓN DEL PATRIMONIO NETO EN EL EJERCICIO** | **(71.912)** | **(151.134)** |

Las Notas 1 a 24 incluidas en las notas explicativas adjuntas forman parte integrante de la cuenta de resultados combinada correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2019.

## BALANCES COMBINADOS AL 31 DE DICIEMBRE DE 2019 Y 2018

(Euros)

| ACTIVO | 31.12.2019 | 31.12.2018 |
|---|---|---|
| **ACTIVO NO CORRIENTE:** | | |
| **Inmovilizado intangible (Nota 5)-** | | |
| Aplicaciones informáticas | 122.208 | 1.600 |
| Inmovilizado intangible en curso | - | 76.635 |
| | **122.208** | **78.235** |
| **Inmovilizado material (Nota 6)-** | | |
| Terrenos y construcciones | 1.038.668 | 1.082.843 |
| Instalaciones técnicas y otro inmovilizado material | 190.747 | 222.981 |
| | **1.229.415** | **1.305.824** |
| **Inversiones inmobiliarias (Nota 7)-** | | |
| Terrenos | 238.162 | 238.162 |
| Construcciones | 295.024 | 309.778 |
| | **533.186** | **547.940** |
| **Inversiones en entidades del grupo y asociadas a largo plazo (Nota 10)-** | | |
| Instrumentos de patrimonio | **25.131** | **25.131** |
| **Inversiones financieras a largo plazo (Notas 9 y 11)-** | | |
| Instrumentos de patrimonio | 180 | 180 |
| Otros activos financieros | 18.400 | - |
| | **18.580** | **180** |
| **Total Activo No Corriente** | **1.928.520** | **1.957.310** |
| **ACTIVO CORRIENTE:** | | |
| **Usuarios y otros deudores de la actividad propia (Notas 9, 12 y 19)** | **2.583** | **2.810** |
| **Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar (Nota 9)-** | | |
| Clientes por ventas y prestaciones de servicios | 88.352 | 55.160 |
| Deudores varios (Nota 20) | 59.830 | 60.845 |
| Activos por impuesto corriente (Nota 18) | 28.304 | 39.715 |
| Otros créditos con las Administraciones Públicas (Nota 18) | 6.171 | 2.533 |
| | **182.657** | **158.253** |
| **Inversiones financieras a corto plazo (Notas 9 y 11)-** | | |
| Instrumentos de patrimonio | 1.859.593 | 1.761.774 |
| Otros activos financieros | - | 102.124 |
| | **1.859.593** | **1.863.898** |
| **Periodificaciones a corto plazo** | **8.671** | **4.412** |
| **Efectivo y otros activos líquidos equivalentes (Nota 14)-** | | |
| Tesorería | **155.387** | **201.951** |
| **Total Activo Corriente** | **2.208.891** | **2.231.324** |
| **TOTAL ACTIVO** | **4.137.411** | **4.188.634** |

| PATRIMONIO NETO Y PASIVO | 31.12.2019 | 31.12.2018 |
|---|---|---|
| **PATRIMONIO NETO:** | | |
| **Fondos propios (Nota 15)-** | | |
| Excedentes de ejercicios anteriores | 4.090.927 | 4.240.321 |
| Excedente del ejercicio | (71.852) | (149.394) |
| | **4.019.075** | **4.090.927** |
| **Subvenciones, donaciones y legados recibidos (Nota 16)** | **-** | **60** |
| **Total Patrimonio Neto** | **4.019.075** | **4.090.987** |
| **PASIVO NO CORRIENTE:** | | |
| **Deudas a largo plazo (Nota 17)-** | | |
| Otros pasivos financieros | **24.600** | **6.200** |
| **Total Pasivo No Corriente** | **24.600** | **6.200** |
| **PASIVO CORRIENTE:** | | |
| **Deudas a corto plazo (Nota 17)-** | | |
| Otros pasivos financieros (Nota 5) | 18.913 | 22.429 |
| **Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar (Nota 17)-** | | |
| Proveedores | 17.956 | 11.981 |
| Acreedores varios | 2.531 | 4.403 |
| Otras deudas con las Administraciones Públicas (Nota 18) | 54.336 | 52.634 |
| | **74.823** | **69.018** |
| **Total Pasivo Corriente** | **93.736** | **91.447** |
| **TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO** | **4.137.411** | **4.188.634** |



Las Notas 1 a 24 incluidas en las notas explicativas adjuntas forman parte integrante del balance combinado al 31 de diciembre de 2019.

## 2. ELKARGOKIDETZEA ETA KUOTAK

Koadro honetan daude 2019. urtean ezarritako kuotak:

**ELKARGOKO 2019KO KUOTAK**

**2018/11/26ko Gobernu Batzordeak proposatuta eta 2018/11/26eko Batzar Nagusian onartuta**

| Profesionalak<br>Elkargokideak/ Atxikiak | Desk. | Hiruhileko kuota<br>Elkargoa+Elkartea | Kuota<br>Izena ematea (*) |
|---|---|---|---|
| **Arrunta**<br>Profesional aktiboak (>30 urte) | - | 30,00 € | 30,00 € |
| **Junior**<br>Profesional aktiboak (<30 urte) | %40 | 18,00 € | 30,00 € |
| **65 urtetik gorakoak****<br>(Jarduera profesionalik gabe) | %75 | 7,50 € | 30,00 € |
| **Langabeak**<br>(Hiru hilean behingo egiaztapena agiri ofizial bidez) | %75 | 7,50 € | 15,00€ |
| **Baliaezintasuna****<br>(65 urtetik beherakoak, ≥ %65eko baliaezintasun maila, baliaezintasun handia edo baliaezintasun absolutua dutenak) | %75 | 7,50 € | 15,00€ |
| **Tituludun berriak**<br>(Titulua lortu ondorengo 1. urtea) | %100 | 0,00 | 0,00€ |
| **Ikasleak ** | %100 | 0,00 | 0,00€ |

* Izena emateko kuota bakarrik ordainduko da elkargoan lehen aldiz harpidetzean edo baja-aldi baten ondoren. Inongo kasutan ez da aplikatuko talde profesional batetik bestera igarotzean.

** Elkargoaren Erantzukizun Zibil Profesionalaren poliza egoera ez-aktibora pasatuko da, eta jardunari utzi arte egindako lanak estaliko ditu. (Ikusi azalpenak eta baldintzak). 65 urtetik gorakoek lanbidearen jarduna utzitakoan BIIEOri jakinarazi behar diote kuota murriztua aplikatzeko eta EZPko Poliza desaktibatzeko.

## 2019KO EMAITZA

2019. urtean, ondoko elkargokide eta kide atxikien altak eta bajak eman dira:

| | 2019 | 2018 | ∆ (%) |
|---|---|---|---|
| **Altak** | **77** | **86** | **%-10,5** |
| ▪ Elkargokideak | 64 | 53 | %20,8 |
| ▪ Atxikiak | 4 | 16 | %-75,0 |
| ▪ Ikasleak | 9 | 17 | %-47,1 |
| **Bajak** | **168** | **139** | %20,9 |
| ▪ Elkargokideak | 150 | 120 | %25,0 |
| ▪ Atxikiak | 14 | 7 | %100,0 |
| ▪ Ikasleak | 4 | 12 | %-66,7 |
| Urtetik urterako aldaketa | **-91** | **-53** | |
| BIIEOko kideak guztira | **3.155** | **3.246** | **%-3,0** |

## ALTAK

**2019an erregistratutako alten osaera eta egiturari** dagokionez, honako datuak aurkezten dira:






## KOLEKTIBOA

Grafiko hauek kolektiboaren osaera erakusten dute, adin eta sexuaren arabera:




| <25 | 25-29 | 30-34 | 35-39 | 40-44 | 45-49 | 50-54 | 55-59 | 60-64 | 65-69 | 70-74 | 75-79 | 80-84 | 85-90 | >90 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 63 | 115 | 151 | 333 | 363 | 255 | 280 | 214 | 191 | 316 | 254 | 148 | 69 | 34 | H |
| 2 | 22 | 53 | 52 | 105 | 76 | 25 | 20 | 8 | 2 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | M |



Hurrengo taulan, ikus dezakegu zein izan den elkargokidetzearen bilakaera azken urteetan. 2008ko krisiaren osteko kide kopuruaren murrizketa nabarmendu behar da.




## 3. PROZEDURA INFORMATZAILEAK ETA ZIGORTZAILEAK

2019an Elkargoko kide bati ere ez zaio informazio edo zehapen prozedurarik ireki.

## 4. ERABILTZAILEEK AURKEZTUTAKO KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK

2019an ez da erabiltzaileen kexa ez erreklamaziorik jaso hartarako ezarritako mekanismoen bitartez.

## 5. KODE DEONTOLOGIKOA

Elkargoak ez du inolako aldaketarik egin aurten bere Kode Deontologikoan.

## 6. GOBERNU BATZORDEA: BATERAEZINTASUNAK

Gobernu Batzordeko kideak ez daude bateraezintasun egoeran eta ez da interes-gatazkarik egon haien jardueran.

# 7. KALITATE ETA INGURUMEN SISTEMA INTEGRATUA

2017an Kalitatearen eta Ingurumenaren Kudeaketa Sistemetako Ziurtagiriak berrituta, UNE-EN ISO 9001:2015 eta UNE-EN ISO 14001:2015 arauen araberakoak, 2019an jarraipeneko kanpo ikuskaritza gainditu zen.

# 8. ARLO PROFESIONALA

## 8.1. LAN PROFESIONALEN TRAMITAZIOA

| Ikus-onespena | Erregistroa | Dokumentuen kontrola | Ziurtapenak eta Egiaztapenak |
|---|---|---|---|

Lan profesionalak tramitatzeko zerbitzuaren bidez, BIIEOk honako berme hauek eskaintzen dizkie elkargokide, kontsumitzaile eta erabiltzaileei:

- ✓ **Egiaztagiri Profesionala:** Gaikuntza eta Trebetasun Profesionala.
- ✓ Dokumentazioaren zuzentasuna eta osotasun formala **berrikustea.**
- ✓ Dokumentazioa **erregistratzea eta zaintzea.**
- ✓ **Erantzukizun Zibil Profesionalaren aseguramendua.**
- ✓ **Babesa: Elkargoaren Erantzukizun Zibil Subsidiarioa.**
- ✓ **Lan esperientziaren ziurtapena.**

## 2019ko EMAITZAK

2019an jaitsiera txiki bat egon da izapidetze kopuruan, 2018 urtearekiko, eta jaitsiera nabarmenago bat gauzatze materialaren aurreikuspen eta diru-sarreretan. Zifra horiek ondoko taulan jaso ditugu:

| | 2019 | 2018 | Δ (% ) |
|---|---|---|---|
| Tramitazio kop. | 1.743 | 1.757 | %-0,80 |
| Diru-sarrerak | 377.992 € | 407.685 € | %-7,28 |
| Gauzatze Materialaren aurreikuspena | 354 M€ | 392 M€ | %-9,69 |

Ondoko grafikoan ikus dezakegu azken urteetan ikus-onespen eta izapidetzeetan egondako bilakaera, eta 2008ko krisiak eta derrigorrekoz ikus-onespenaren araudia aldatu zuen 1000/2010 Errege Dekretuak izandako eragina. 2014an diru-sarrera kopuru baxuena izan zen: 301. 822 €.




## ESTATISTIKAK ETA ADIERAZLEAK

Grafiko hauek tramitazio mota ezberdinek jarduerari egindako ekarpena eta Arlo Profesionaleko diru-sarrerak erakusten dituzte.






## 8.2. ERANTZUKIZUN ZIBIL ETA PROFESIONALEKO ASEGURUA

**18/1997 Legearen 12. artikulua** betez, BIIEOk kontrolatu behar du elkargoaren kontrolaren mende dauden profesionalen jarduera guztietan derrigorrezko aseguratzea betetzen dela.

Era berean, elkargoaren betebeharra da bertako kideei aseguratzeko behar dituen bideak erraztea.

Horrela, Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargoak hartzaile gisa izenpetu du **Poliza Kolektibo** bat, elkargokide guztiak babesten dituena.

BIIEOaren **Erantzukizun Zibil Profesionaleko Poliza Kolektiboa** Industria Ingeniarien 10 Elkargok negoziatu dute, guztira 12.830 Ingeniari Elkargokide batzen dituztenak, helburu hauek lortzera bidean:

- Jarduera librean dabiltzan profesionalei eta ingeniaritza txikiei **merkatu aseguratzailera sartzeko** baldintzak hobetzea.
- Arrazoi ezberdinengatik (langabezia, enpresa aldaketa, itxiera...) enpresaren EZPren estaldura galdu duten profesionalei **babesa bermatzea.**
- **Enpresaren polizak osatzea** eta elkargokideak babestea aipatutako poliza horiek haien interesetarako izan ditzaketen akatsetatik (oinordekoen estaldurak, inhabilitazio profesionala, aldi baterako eremua, eremu geografikoa...)
- **Segurtasuna bermatzea jardun profesionala utzi eta gero**, oraindik indarrean egon daitezkeen erantzukizunengatik.

Elkargoaren polizak eskaintzen dituen estaldurak laburtzen dituzte datu hauek:

MARSH — **2019ko Poliza** — MAPFRE

**Jardunean dauden 2.300 elkargokide aseguratu**

**880 elkargokide babestu ez aktibo**

**38.819 € oinarrizko estaldura kontratatzera bideratuta**

**10.216 € zabalkuntzak diruz laguntzera bideratuta**

**4.000.000 € / ezbeharrera arteko estaldurak**

## 8.3. AHOLKULARITZA ETA LANBIDEAREN BABESA



Gure elkargokideek, baita partikularrek, enpresek eta administrazioek ere, gehien eskatzen duten zerbitzuetako bat da era ezberdinetako kontsulten ebazpena.

Gehien kontsultatzen diren gaiak zerrendatu ditugu segidan:

| Kontsulta Gaiak |
|---|
| 1. Gaitasun profesionalak |
| 2. Jarduera profesionala (eskakizunak, bateragarritasuna, eredu juridikoak...) |
| 3. Araudiak eta Legeak |
| 4. Erantzukizun Zibil Profesionala |
| 5. Aholkularitza teknikoa (proiektuen edukia eta egitura, txostenak eta beste dokumentu batzuk, izapide administratiboak eta beste batzuk) |
| 6. Ikus-onespenak eta beste tramitazio batzuk (prozedura, ikus-onespen elektronikoa...) |
| 7. Elkargoko Zerbitzuak (Elkargokide txanda, Profesionalen direktorioa, Lan poltsa...) |
| 8. Lan eta Lanbide Orientabidea |

Beharrezkoa bada, kontsultak elkargoko **Zerbitzu Juridikoetara** bideratzen dira, eta dohainik konpetentzia profesional eta lan arloetako aholkularitza osatzen dute.



**Eskumenak Babesteko** arloan, 2019ko ekintzak hurrengo gaietan oinarritu dira:

I. **Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Gorputz eta Eskalen Antolamenduari buruzko Legea aldatzeari buruzko Lege Aurreproiektua.** Erkidegoko Administrazioa egiten ari zen lehenengo zirriborroen berri izan ostean, Erkidegoko Administrazioak gutuna bidali dio Funtzio Publikoko Zuzendariari, Industria Ingeniarien ordezkaritzan Lege Aurreproiektu horretan parte hartzeko interesa dugula adieraziz. Era berean, interes horren berri eman zaio Garapen Ekonomiko eta Azpiegitura arloari.

## 8.4. ARAUDIA ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Elkargokideak informazioa ematen jarraitzen du, webgunearen bitartez, jarduneko elkargokideei dagozkien lege arloko berrikuntzei buruz, honako zerbitzuak ere eskainita:

### UNE arauei buruzko online kontsulta-puntua

Zerbitzu hau doan eta aurrez aurre eskaini da BIIEOn 2019ra arte, baina 2019ko abendutik aurrera online eskainiko da, Kontseiluaren webgunearen bidez. Interesa dutenek alta eman beharko dute orain arte bezala AENOR erakundeak eskaintzen duen UNE arauen zerrenda ikusteko.

### Legistec- Legegintzako Datu Basea

| | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|
| Sarrerak | 493 | 623 | 415 |

Erabiltzaileak beharrezko gakoak ditu eta aplikazioak aukera ematen dio elkargokide bakoitzari **espezializazio profesionalaren eta lanbidearen arlo espezifikoaren arabera** pertsonalizatzeko. Informazio zuzen eta pertsonalizatua jaso dezakete eta **erabiltzailearen datu-base partikular bat konfiguratu**.

**Legegintzako beste albiste batzuk Berrien Buletinaren bitartez:**

- Hozkailu instalazio eta ikuskaritza teknikoetarako araudi berria.
- Auzitegi Nazionalak bermatu du ingeniariek Eraikinen Ebaluazio Txostenak egin ahal izatea.

## 8.5. ENPLEGURAKO JARDUERAK

Elkargokideen enplegagarritasuna eta sustapen profesionala bultzatze aldera, BIIEOk elkargokideen esku jarri ditu lan-poltsa, elkargokidearen txanda eta profesionalen direktorioa zerbitzuak.

Zerbitzu horien bitartez, guztira 1.473 elkargokidek eta atxikitako kidek jaso dute enplegu eta kontratazio aukerak dauden zerbitzuen bitartez:

| LAN-POLTSA | Ingeniarien txanda | Profesionalen Direktorioa |
|---|---|---|
| 1.368 | 38 | 76 |

## EMAITZAK

| | 2019 | 2018 | Aldea |
|---|---|---|---|
| Lan eskaintzak | 225 | 309 | %-27 |
| Hutsak | 85 | 72 | %18 |
| Jasotako CVak | 545 | 997 | %-45 |
| Hautagai kopurua | 154 | 215 | %-28 |
| Enpresak | 97 | 127 | %-24 |

Hurrengo orrialdeko grafikoan lan-eskaintzek eta elkargokide txandan jasotako eskariek 2008tik izandako bilakaera azaltzen da, eta industria ingeniaritzaren lan-arloan izandako joera-aldaketak ikusten dira.




## INGENIARIEN TXANDA eta PROFESIONALEN DIREKTORIOA

**Ingeniari txanda** ezartzen da **jardun libreko edo ingeniaritza sozietateetako kontratazioa ahalbidetzeko**, Elkargora kontsultak egiten dituzten herritarrei proiektu bat egiteko, txosten bat eskatzeko, peritatze bat, egiaztagiri bat edo edozein ingeniaritza zerbitzu puntual eskatzeko.

Halaber, zerbitzu honetatik **peritu judizialen zerrendak** egiten dira eta uneoro bidaltzen dira Eusko Jaurlaritzara Prozedura Judizialetan parte hartzeko.

**BIIEOren webean argitaratutako zerrenden** bidez, kontsumitzaile eta erabiltzaileek sarbidea dute **Profesionalen Direktorioan** izen emanda dauden ingeniarien harreman profesionaleko datuetara.

## INGENIARI LANGABETUAK

Langabe kopurua **kolektibo osoaren % 0,8tik** behera mantentzen da. Honek gure lanbidearen dinamismoa berresten du.

Haiei guztiei Elkargoak **% 75eko beherapena ezartzen die elkargokidetze-kuotan, eta % 50eko beherapena BIIEOk antolatutako prestakuntza-ikastaroen tarifetan**.

| 2019ko datuak | |
|---|---|
| **25** | **ingeniari langabe** |
| **2.840 €** | **diru-laguntzetan** |

## JARDUERA LIBREA ETA LAAB-REN MUTUALITATE ALTERNATIBOA

Ingeniari elkargokideak **beren konturako ingeniari** gisa aritzeko, elkargoko industria ingeniari guztiek eskuragarri duten **LAABren (Langile Autonomoen Araubide Berezia) Mutualitate Alternatiboaren** aukerak abantaila handiak eskaintzen dizkie, besteak beste:

- ✓ Jarduera Librea besteen konturako jarduerarekin edo erretiroarekin bateratzeko aukera ematen die, Gizarte Segurantzan **kotizazioak handitu gabe** eta prestazioko eskubideak galdu gabe.
- ✓ **Kapitalizazio indibidualeko** sistemaren aldeko aukera egitea LAABko kuotak baino kuota txikiagoekin, eta LAABn sartzeko aukerarekin nahi duten unean.

- **AMIC**
- **Kataluniako Elkargoko Ingeniarien Mutua.**

## 8.6. PRESTAKUNTZA JARDUERAK




2019ko prestakuntza jardueren emaitza ekonomikoak handiagoak izan dira 2018arekin alderatuta. Era berean, nabarmen handitu da gure Prestakuntza Programa osatu duten jardueren kopurua, bertan emandako kanpo prestakuntzari esker eta hitzarmen batzuei esker, hala nola Euskalit / SPRIrena, horren bidez **INNOBIDEAK PRESTAKUNTZA** Programa eman baita lehen aldiz Elkargoan.

| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduerak** | **45** | **39** | **52** | **41** | **66** | **74** | **119** |
| **1. Ikastaroak** | 16 | 18 | 23 | 15 | 27 | 31 | 36 |
| **2. Hitzaldiak** | 14 | 12 | 15 | 17 | 16 | 15 | 9 |
| **3. Kanpoko prestakuntza** | 15 | 9 | 14 | 9 | 23 | 28 | 74 |
| **Asistentzia** | **769** | **798** | **1116** | **946** | **1135** | **1025** | **1718** |
| **1. Ikastaroak** | 340 | 376 | 336 | 209 | 279 | 317 | 281 |
| **2. Hitzaldiak** | 429 | 422 | 481 | 641 | 577 | 293 | 306 |
| **3. Kanpoko prestakuntza** | Daturik gabe | Daturik gabe | 299 | 96 | 279 | 415 | 1131 |
| **Diru-sarrerak** | **70.548 €** | **81.029 €** | **113.124 €** | **88.051 €** | **106.186 €** | **100.973 €** | **113.301 €** |

BIIEOren prestakuntza programa eskaintza zabala eraikitzeko egituratzen da, hala **Prestakuntza Teknikoan** (Ingeniaritza Mekanikoa, Elektrikoa, Prozesuetakoa, Eraikuntza eta Eraikinak, Energia, Ingurumena, eta abar), nola **Kudeaketan eta Zeharkako Gaitasunetan (Plangintza eta Kudeaketa, Pertsonak, Estrategia eta Berrikuntza, Ekintzailetza, eta abar**), ingeniarien garapen profesionala ahalbidetuko duena egungo merkatuan eskatzen diren beharretara egokituta.

Halaber, esan dugun moduan, prestakuntza-eskaintza erreferentziazko entitateekin egindako **hitzarmenen eta akordioen** bidez osatzen da, besteak beste:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| TUV SUD | EUSKALIT | MONDRAGON UNIBERTSITATEA | SPRI | EHU / UPV |

## LAGUNTZAK

Aurreko ataletan aurreratu dugun moduan, Teknologia eta Prestakuntza Batzordeak interes eta kezka handia du langabezia egoeran dauden kideak laguntzeko.

Kolektibo honi bideratutako laguntza gisa **% 50eko deskontua eskaintzen da matrikulan**, BIIEOk antolatutako eta eskainitako ikastaroak egiteko eta gure kolektiboaren garapen profesionala optimizatzen duten doako tailerrak antolatzeko. Era berean, BIIEOren lankidetzaren bidez antolatzen den kanpoko prestakuntzan matrikulatzeko abantailak eskaintzen dira kolektiboko kideentzat.

## IKASTAROAK

Matrikula duten ikastaroen inguruko programan aipatu behar da PMP tresnaren inguruko ikastaroaren 5. Edizioa antolatu dela. Urtero balorazio bikainak izaten ditu. Horretaz gain, zeharkako gaitasun eta proiektuen kudeaketarako tresnen inguruko ikastaroak antolatu dira, matrikularekin, eta ingeniaritza elektrikoari buruzkoak, denak ere parte-hartze handiarekin.

Gainera, BIIEOk **Formación in Company** motako jarduerak antolatzen ditu, hala eskatzen duten enpresentzat.



**Programatutako ikastaroak: 36**

**Emandako ikastaroak: 26**

**Inskripzioak: 281**

**Balorazio orokorra: 8,5**

## Hitzaldiak eta Jardunaldiak

Asistentzia askeko Hitzaldiek eta Jardunaldiek elkargokideen arteko harremanak sustatzen laguntzen dute gaur egungo gaien inguruan, betiere eztabaida biziz jarraituta.

2019an programa nahiko osatua izan dugu. hainbat gai hartu ditu barne, hala nola zibersegurtasuna, automozioa, elektrizitate eta energiaren merkatuak, IKTen bilakaera datuen tratamenduan, eta abar. Ohikoa den moduan, BIIEOk hainbat organismo garrantzitsurekin lan egin du, horien artean Euskalitekin, eta Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astean parte hartu du.



**Hitzaldiak – Jardunaldiak:**

**Programatuak: 9**

**Egindako jardunaldiak: 9**

**Inskripzioak: 306**

**Balorazio orokorra: 8,6**

## KANPOKO PRESTAKUNTZA

Elkargoak berak antolatutakoen osagarri gisa, gero eta Prestakuntza Entitate eta Industria Enpresa gehiagok eskatzen dituzte lokalak Elkargoan beren ikastaroak emateko edo beren produktuen aurkezpen teknikoak egiteko.

BIIEO, bestalde, lanean ari da erakunde eta entitateekin loturak estutzeko. Ondorioz, jarduera gehiago egin dira, eta horri eskera, Elkargoaren figura indartu eta gure kideen ezagutza eta esperientzia handitu dituzte.

2019an **TUV SUD Ibérica** erakundearekin lanean aritu gara eta **Mantenimendu Masterra (2019-2020)** jarri dugu martxan. Euskadiko edizioan BIIEOren instalazioetan ematen da.

**Innobideak Prestakuntza** programa BIIEOn eman da lehen aldiz 2019ko ekitaldian, SPRI eta Euskalit erakundeek sinatutako akordioaren ostean. Hori dela eta, hainbat jardunaldi egin ditugu gure instalazioetan. Doako prestakuntza saio horiek SPRI erakundeak garatzen ditu, EUSKALITEN laguntzarekin, eta Kudeaketa Aurreratuaren funtsezko kontzeptuak ezagutzeko diseinatua dago. Industria-enpresa eta lotutako zerbitzuetako langileei zuzenduta daude.

Gure programaren barruan, gainera, gaurkotasun gaiei buruzko jardunaldi luzeak ere izan ditugu. Bereziki aipatu behar dugu honakoa: *"Identificación y resolución de conflictos en proyectos internacionales de ingeniería y suministros"* (Ingeniaritza eta hornidura arloko nazioarteko proiektuetan gatazkak identifikatu eta konpontzea).

Ezin dugu ahaztu on line prestakuntza programan egin dugun lan handia. Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialaren Kontseiluak estatu mailako elkargo guztiekin elkarlanean antolatzen du, gurea barne, eta gure prestakuntza modu malguagoan osatzeko aukera ematen digu.



**Programatuak:** 74

**Emandakoak:** 67

**Inskripzioak:** 1131

**Balorazioa:** 8,4

## PRESTAKUNTZA KALITATEA

Kolektiboaren parte-hartzeari esker, egiaztatu dugu Teknologia eta Prestakuntza arloak emandako **zerbitzuen gaineko asebetetze-maila osoa altua dela**, eta hori mantentzen eta handitzen saiatuko gara.

## TOPALEKUAK

### TXOKOA

Era berean, elkargokideek gero eta gehiagotan erabiltzen dute erabilera anitzeko eremua, **TXOKOA**, eta 2016ra arte abesbatza eta batzordeetarako erreserbatuta zeuden erabilerak zabaldu dira.

Zehazki, 2018an erreserba kopurua handitu egin da; 43 erreserba egin dira eta **573 pertsonak** erabili dute. Eremu hori networking-eko topaketak egiteko lekua da, egindako jardunaldi eta aurkezpenei lotuta.

# 9. GIZARTE EKINTZA

## 9.1. INGENIARITZAKO MUTUALITATEA

AMICekin sinatuta dagoen aseguruaren produktuak indarrean eta eskuragarri jarraitzen du gure elkargokideentzat. 2002an onartutako eraldaketa garrantzitsuaren ondoren, Mutualitateak heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioa soilik gorde du, eta horrek gure kolektiboaren barnean dauden aurreikuspen xedeak bete egiten ditu.

2019an, mantendu egin da ezbeharren tasa aurreko urtearekin konparatuta; azken 5 urteak kontuan hartuz gero, egonkortuta dago talde honi dagokionez.

| 2019 | Bizkaia | Guztira | % |
|---|---|---|---|
| **Mutualistak Bizkaia** | **997** | **8.036** | **%12** |
| **Altak – Bajak** | -71 | -296 | **%24** |
| **Primak** | **93.763 €** | **720.236 €** | **%13** |
| **Ezbeharrak** | **1** | **12** | **%8** |
| **Prestazioak ezbeharreko** | **6.214 €** | **160.332 €** | **%4** |

## 9.2. KULTURA ETA GIZARTE EKINTZA

### BIZKAIKO INGENIARIEN MUSIKA ELKARTEA.

2019an zehar, Bizkaiko Ingeniarien Abesbatzak **12** Kontzertu eman ditu guztira.

Bere web orrialdea du: http://www.coroingenierosbizkaia.com/, egiten diren jarduerei zabalkundea emateko, eta musika zaletasuna duten kideak eta horien senideak erakartzeko xedez.

### BIDAIAK

Bidaia labur bat egin dugu **Libanora**, eta **103 lagunek** parte hartu dute. Hiru irteeratan banatu ziren, eta esperientzia polita izan zen guztiontzat.

**Txinara** bidaia egin da, eta **71 lagunek** hartu dute parte. Bi irteeratan banatu ziren, eta bertako hiri nagusiak eta herrialde zoragarri horretako kultura ezagutu dituzte. Batzordeak bertaratuen iritziak jaso ditu.

### BURDINOLA KLUBA

Hiru asterik behin txangoak egiten jarraitzen du Klubak. 2019an **11 txango** egin ziren eta Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Kantabria, Burgos eta Errioxako leku interesgarriak bisitatu zituzten.

Taldea **52 elkargokidek** eta **152 kidek** osatzen dute, eta interesdun guztiei gonbita egiten die haien irteeretara joateko eta izpiritu berarekin gozatzeko.

## 9.3. ELKARTASUNA: IC-LI –Lankidetzarako Ingeniaritza

**ICLI** erakundeak lan-taldea gaztetu eta bere heldutasunean aurrera egin du, helburu anbiziotsuago batzuk ezarri eta lankidetza-bide berriak aztertzeko.

ICLI erakundearen jarduera arlo nagusia proiektuena da. Arlo horren ikuspuntutik, 2019a urte interesgarria izan da; izan ere, jarduera handitu eta dibertsifikatu egin da, bai proiektu kopuruari dagokionez, baita tipologiari dagokionez ere.

Zifratan, **242.029 €** lortu dira laguntzetan, eta horri esker **25 proiektu** aurkeztu dira ohiko administrazio deialdietara -arrakasta handiarekin- zein konpainia handietako Fundazio ugaritara; horrela izanik, aurreko ekitaldian hasitako estrategiarekin jarraitu dugu, eta ICLI erakundearen zabalkundea oso positiboa izaten ari da. Administrazioen finantza laguntza proiektuen garapenerako diru-sarrera iturri nagusia da oraindik.

Gure egitekoa honako lekuetan kontzentratzen da: Afrika, Hego Amerika eta Asia.

Sektoreka, **hezkuntzak** garrantzia handia dauka oraindik ere gure proiektu-zorroan, **nekazaritza garapena** ahaztu gabe, hezkuntza osagai garrantzitsuarekin, eta **emakumeak** esku-hartze guztien inguruan daukan presentzia. **Unibertsitate eremuko sentsibilizazioari** dagokionez, 2019an Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultatearekin eta EHUko

Ingeniaritza Eskolarekin harremana sendotu dugu. ICLI erakundeak Lankidetza arloko Gradu amaierako Lanak egitea sustatzen du, eta erronka teknologiak proposatzen ditu Ingeniaritza Masterretako irakasgaietarako.

2019an **Industria Ingeniaritzaren arloko Sari Nazionala** jaso genuen Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialak ematen duen "Proiektu Solidarioa" kategorian.

Erakundearen oinarri nagusietako batzuk gardentasuna eta zorroztasuna dira; horregatik, urteko kontuen ikuskaritza egiten dute.

2020an erronka handiak ditugu, hala nola webgunearen inaugurazioa. Horrekin batera, nortasun korporatibo bisualaren aldaketa prozesuari amaiera emango diogu. Gainera, 25. Urteurrena dela eta hainbat ekitaldi burutuko ditugu.

## 9.4. EUSKAL KULTURA

1976. urtetik, EKB (Euskal Kultur Batzordea) euskararen aldeko ekitaldiak antolatzeaz arduratzen da, eta horretarako eginkizunak kudeatzen ditu.

Hizkuntza Kudeaketa arloko Bikain Kalitate Ziurtagiria lortu ostean, eta ebaluazioaren amaierako txostenean oinarrituta, hurrengo urratsak finkatu ditugu datozen urteotan ziurtagiriaren hurrengo maila lortzeko, eta horrela oinarrizko mailatik zilarrezko mailara igarotzeko.

Hasierako diagnostikotik abiatuta, urte hasieran 2019ko Euskara Plana diseinatu zen Euskara Batzordean. Bertan, urtean zehar plana burutzeko markatutako helburuak eta ekintzak daude jasota.

Erakundeei **diru-laguntza eskaerak** egin zaizkie: Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza. Hiru erakundeek eman digute laguntza, euskara plana garatzeko.

Urterako ezarritako helburu nagusiak honakoak dira:

- Komunitatearen errotulazioan elebitasuna bermatzea.
- Sare sozialetan euskararen presentzia bermatzea.
- Langile euskaldunak identifikatzea (eremu digital eta presentziala)
- BIIEOren jakinarazpen guztiak elebidunak izatea.
- Lanpostuei hizkuntza eskakizunak lotzea.

Hauek dira burututako ekintzetako batzuk:

2019an euskarazko **kontakizunen lehiaketaren XXIII. Edizioa** izan da. Lau izan dira sarituak:

- A maila: **NIK MARGOLARIA IZAN NAHI DUT**. Naia Ortega Martinez
- Helduen maila: **NOLAKO ZURA…** Gorka Azkarate Torner
- Helduen maila: **HITZAK GALDU ZIRENENAN**. Ainara Ibañez Lusarreta
- Helduen maila: **NIRE ALABARI**. Izaro Akesolo Barañano



Aurten Korrikaren beste edizio bat izan dugu, eta, betiko moduan, Elkargoak kilometro bat erosi eta korrika eginez parte hartu dugu, ekimen honi babesa emateko.

Argazkian, BIIEOko kideak lekukoa eramaten.



BIIEOko bi pertsonak hainbat ekitalditan hartu du parte, esaterako, Bilbo Zaharra Euskaltegiak antolatutako Klasikoen **XII. Irakurraldi Jarraituan** Arriaga Antzokian. 2019an Anjel Lertxundi idazlearen "Otto Pette" lanaren irakurketa egin da.

Pasa den urtean, "**coiib.eus**" domeinua lortu genuen, eta aurten webgunearen migrazioa egin dugu.




Elkargoko kideen euskara prestakuntzarekin jarraitu dugu, aldaketa batzuekin; dinamika aldatu da talde guztiarengana zuzenduz, ohitura linguistikoetan eragiteko eta jarduneraren berezko lengoaia praktikatzeko, emaitza onarekin.

Bi hitzaldi antolatu dira Plentziako Itsas Estazioarekin lankidetzan. Lehena, PiE-UPV/EHUk EGITEN DUEN ITSASOAREN OSASUN ANALISIA, maiatzen egin zen, eta Oihane Diaz de Cerio doktorea izan zen hizlari. Bigarrena, **SATELITE BIDEZKO OZEANOGRAFIA: OINARRIZKO TEKNOLOGIAK ETA ESKURAGARRI DIREN ALDAGAIAK,** azaroan izan zen, eta Ganix Esnaola doktoreak eman zuen.

Urtero legez, **Euskararen Egunean** (abenduak 3) hainbat erakundek antolatutako ekitaldi ofizialetan parte hartu genuen.

## 9.5. BGAE

Araba eta Gipuzkoako Elkargoekin batera daukagun BGAEak, urte bikain baten ostean, honako urteko errentagarritasuna aurkeztu du 2019. urtean:

| | Errentagarritasuna | Bazkide kopuru osoa | Prestazioak |
|---|---|---|---|
| **Ingeplan** | 8,58 % | 648 | 426.324 € |
| **Planinge** | 13,55 % | 748 | 113.664 € |
| **Ingeplan Monetario** | -0,55 % | 24 | 0 € |

Erakundearen gobernantzaren gaineko prozedurak ezartzen jarraitzen dugu, BBVA ASSET MANAGEMENT SA erakundearen babesarekin.

## 9.6. DYNA ALDIZKARIA

Aldizkariaren datuak:

| | 2019 |
|---|---|
| **Harpidetzak Paperezko Edizioa Bizkaian** | **1.632** |
| **Altak** | 3 |
| **Bajak** | 24 |
| **Kuotak Paperezko Edizioan** | **46.565 €** |
| **Elkargoko Harpidetza Dyna Digitalera** | **14.583 €** |

2019an emaitza aurrekontuan jasotakoa baino hobea izan da. Hay que tener en cuenta que parte de las partidas de 2 de los 3 congresos de 2019 (unos 12.500€), adelantaron su facturación por necesidades del cliente al año 2018.

Emaitzen kontuak urte bukaeran 9.533 €-ko etekina izan du (zergen ostean). Emaitza positibo horren arrazoia da egileen partiden jokabide egokia, *royaltieak* (cedro) eta inprimatutako harpidetzak izan dira. Kongresuek fakturazioa 2019tik 2018ra aurreratu arren, emaitza ona izan da. Arazoak izaten ari gara egileen atzerapenekin, eta maketa konprobatzera bidaltzeko unean hasiko gara edizioa kobratzen (lehen aleen argitalpena egitean hasten ginen). Hau da, kontuan izan behar dugu aurten egileen fakturazioa 2020ko urtarriletik 2019ko abendura aurreratu zela. Zirkunstantzia horien ondorioz, partiden emaitza negatiboa izan da: Erakunde mailako harpidetzak eta publizitatea.

2019ko galera eta irabazien kontuan ekarpena egitea:

- ✓ **%**34: Egileak
- ✓ **%**32: Harpidetzak paperean.
- ✓ **%**11: Harpidetza digitalak
- ✓ **%**11: Harpidetza instituzionalak
- ✓ **%**6: Publizitatea
- ✓ **%**5: Royaltie eta harpidetza pertsonalak

2019ko balantzearen ratioak:

- ✓ Ondare garbiaren gaineko finantza-errentagarritasuna: 4,7%
- ✓ Likidezia (AC/PC): 6,65
- ✓ Partaidetzaren balioa (PN/parte-hartzaile kopurua): 3,13€

2019ko mugarri aipagarrietako batzuk honakoak izan dira:

- 2019an egindako ale bereziak:
  - ✓ 2019ko martxoa: Ingeniaritza mekanikoa eta diseinua
  - ✓ 2019ko uztaila: Eraikuntza
  - ✓ 2019ko azaroa: Energia
- FI hobetu da JCRri dagokionez, 0.521etik 0.629ra pasatuz, baina kuartilak Q4 izaten jarraitzen du Wos-en eta Q3 Scopus-en.
- DYNAES eta DYNAMN aldizkariak FECYT kalitate zigilura aurkezteak ez du arrakastarik izan. Espero dugu FECYT erakundeak aldizkari horien ahulguneen inguruko txostena egitea, hobekuntza plan bateratu bat egin ahal izateko.
- Aldizkari digitalen indexazio-prozesuarekin jarraitzen dugu, eta, orain arte, honako datu-baseetan sartu dira:
  - ✓ DYNAES: Fuente Academica Premier (EBSCO), Google Scholar, MIAR, Catálogo 2.0 Latindex , Dulcinea, CIRC, Microsoft Academic, Indices CSIC y Cabells' Journal WhitelistDYNAMN: Google Scholar, MIAR, ERIH PLUS, Catálogo 2.0 Latindex, Dulcinea, CIRC, Microsoft Academic, Indices CSIC y Cabells' Journal Whitelist
  - ✓ DYNANT: Google Scholar, MIAR, Catálogo 2.0 Latindex , Dulcinea, CIRC, Microsoft Academic, Indices CSIC y Cabells' Journal Whitelist

# 10. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIO SISTEMAK

## INFORMAZIO SISTEMAK

2019ko apirilean Elkargokideen eta Ekitaldien kudeaketa sistemaren, webgunearen eta Elkargoak eskaintzen dituen zerbitzuen migrazioa egin zen.




Irudia, GesCol kudeaketa sistema berriak daukan itxura.

# WEBGUNEA

Elkargoak on-line eskaintzen ditu bere elkargokideek aurrez aurre balia ditzaketen zerbitzu ia guztiak. Horrela ingeniari guztiek daukate zerbitzu hauetarako sarbidea: On-line elkargokidetzea, Ikus-onespen elektronikoa eta bestelako tramitazioak, Ikastaro eta Hitzaldietarako Izen ematea, On-line Denda, Enplegu-poltsa, Ingeniaritza txanda...Era berean, webgunea etengabe eguneratzen ari da, elkargokideei intereseko informazioa emateko.




Elkargoaren webgune osoaren migrazioa ere egin da, coiib.eus domeinura eramanez.

## BULETINAK ETA ALBISTEAK

2019an **107 albiste** argitaratu dira guztira, eta **48 buletinen bidez eta albiste garrantzitsuenetarako 28 jakinarazpen espezifikoren bidez** helarazi dira.

Era berean, Enplegu Buletinak ere egiten dira, zerbitzu horretan izena ematen duten elkargokideei bereziki zuzenduak.

## SARE SOZIALAK

Elkargoa **LinkedIn** sare sozialean dago. Bertan, gure berri eta jarduerarik garrantzitsuenak eta interesgarrienak helarazten dizkiegu elkargokideei eta gure jarraitzaileak diren eta horietan parte hartzen duten profesionalei. **LinkedIn-eko prestakuntza profilak 7875 jarraitzaile ditu, eta enpresa profilak 1452 jarraitzaile.**

Gure presentzia sare sozial ezberdinetara zabaldu eta sendotzeko ari gara lanean, eta BIIEOk profilak ditu gainerako sare sozialetan ere: **Facebook (418 jarraitzaile), Instagram (531 jarraitzaile) eta Twitter (294 jarraitzaile)**

2019aren amaieran, **10.000 jarraitzaile baino gehiago izan ditugu sare sozialetan.**

# 11. HARREMAN ETA JARDUERA INSTITUZIONALAK

- **Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusia eta Espainiako Ingeniari Industrialen Elkarteen Federazioa.**

  Nazio mailan integratuta gauden erakundeak dira.

- **Euskadiko Industri Ingeniariek Kontseilua.**

  EAEko Ingeniarien hiru Elkargoak hartzen ditu barne.

- **Eusko Jaurlaritza:**
  - **Industria Segurtasuneko Kontseilua**, BIIEOren Zuzendaritzak Euskal Herriko Ingeniari Industrialen Kontseiluaren ordezkaritza dauka.
  - **Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseilua,** 2016an sortutakoa, gure BGAEko presidentea kidea da, Federazioaren erakundeen ordezkaritzan.
  - **Ingurumen Saila eta Ihobe:**
    - **Eraikuntza eta Eraispen Hondakinen** Kudeaketako Azken Txostenen Egiaztapenerako Arauen aplikazioa, 112/2012 Dekretuaren arabera.
- **Bilboko Udala, Hiri Kontseilu Zibikoan parte hartuz.**
- **Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola:**
  - Industria Ingeniaritzako Masterreko ikasleei orientazioa emateko hitzaldietan parte hartzea.

- **Deustuko Ingeniaritza Fakultatea:**
  - BIIEO sariak graduondoko espedienterik onenari, Industria Ingeniaritzarekin erlazionatutako hiru masterretan.
- **Bilbao Metropoli 30, BasquePro ekimenaren barnean.**
- **Ingeniarien Eskolaren Fundazioarekin**, jarduna 1998an hasi zuena, bere Patronatuan parte hartuz.
- **Ingeniaritza Eskolako Ikasle Ohien Elkartea,** Ingeniaritza Eskola Fundazioak eta BIIEOk elkarlanean sortua.
- **Tecnalia Ziurtagiria,** Eraikuntzako Produktuak Egiaztatzeko Batzordeko kide modura.
- **SPRI,** Innobidea Prestakuntza programarekin lankidetzan, gure instalazioetan hogei ikastaro inguru emanda.
- **Bilboko Zientzia Medikoen Akademia,** prestakuntza eta dibulgazio jardueren garapenerako eta osasun aspektuen garapenerako lankidetza-hitzarmena sinatuta.

# I ERANSKINA – PRESTAKUNTZA EKINTZEN ZERRENDA

| Ikastaroa | Arloa | Orduak | Inskripzioak | Balioespena |
|---|---|---|---|---|
| PMP® / CAPM® ziurtagiria lortzeko prestakuntza | Proiektuen kudeaketa | 40 | 14 | 9,4 |
| Leherketa atmosferan industria instalazioak eta segurtasuna (ATEX) | Industria Segurtasuna | 24 | 14 | 8,3 |
| Hodi sistemen Malgutasuna aztertzea, CAEPIPE bidez | Ingeniaritza Mekanikoa | 32 | 5 | - |
| Kudeaketa eraginkorra Lean eta Kanban tresnekin | Proiektuen kudeaketa | 16 | 11 | 8,7 |
| Ahozko aurkezpenetarako teknikak ingeniarientzat: Nola aurkeztu eta zabaldu ingeniaritza arloko edukiak eta zabaldu | Zeharkako eskumenak | 9 | 20 | 7,3 |
| Industria proiektuen faseak, kontratuak eta sekuentziak | Proiektuen kudeaketa | 12 | 9 | 8,5 |
| Lurreko hartuneen neurriak | Ingeniaritza Elektrikoa | 12 | 9 | 9,5 |
| Kontaktu eta pasoko tentsio neurketak | Ingeniaritza Elektrikoa | 12 | 12 | 8,7 |
| Errendimendu altuko proiektuak lortzeko 3.0 Teknika eta Tresnak | Proiektuen kudeaketa | 16 | 2 | - |
| Instalazio berriztagarrien ekipoen diseinuetarako azterketa elektrikoak | Ingeniaritza Elektrikoa | 12 | 24 | 8,3 |
| Matlab | Kudeaketa tresnak | 24 | 5 | 6,6 |
| Makina eta instalazioen diseinua eta bateragarritasun elektromagnetikoa (interferentzia elektromagnetikoen arazoak saihesten ditu). | Ingeniaritza Elektrikoa | 8 | 5 | - |
| 4.0 egoeren Kudeaketa eta Ezarpenerako Zuzendaritza workshop jarduera | Proiektuen kudeaketa | 16 | 13 | 8,7 |
| Hobetu zure produktibitatea Google tresnen bidez | Kudeaketa tresnak | 3 | 8 | 8,9 |
| Social Selling metodologia, industriaren mesedetan | Kudeaketa tresnak | 6 | 0 | - |
| Contract & Claim Management | Nazioartekotzea | 16 | 15 | 8,1 |
| Nazioarteko kudeaketa eta negoziazioa | Nazioartekotzea | 16 | 0 | - |
| Karkasa eta Tutuz eginiko Bero-trukagailuak | Ingeniaritza Mekanikoa | 16 | 7 | 9,1 |
| On line: Uren Tratamendua Industria lantegietan | Ingeniaritza hidraulikoa | 40 | 13 | 9,1 |

| Ikastaroa | Arloa | Orduak | Inskripzioak | Balioespena |
|---|---|---|---|---|
| Industria Instalazioetako Hodi Sistemetarako euskarriak ASME B31 (I): Kodeak eta diseinu irizpideak, diametroa eta zama galtzea. | Ingeniaritza Mekanikoa | 40 | 2 | 7,2 |
| Industria Instalazioetako Hodi Sistemetarako euskarriak ASME B31 (II): Hodien isolamendua, lodieren kalkulua, kanpo presioaren ondoriozko egiaztatzea, lurperatutako hodien diseinua. | Ingeniaritza Mekanikoa | 40 | 3 | 8,2 |
| Industria Instalazioetako Hodi Sistemetarako euskarriak. ASME B31 (III): Hodien layout, ekipoetarako interkonexioa, malgutasun analisia, euskarrien diseinua | Ingeniaritza Mekanikoa | 40 | 3 | 8 |
| Online: biltegiratze deposituak. API 650 (I): Diseinu kode eta irizpideak, materialen hautaketa, deposituaren hormaren diseinua, deposituaren sakoneko aldearen diseinua | Ingeniaritza Mekanikoa | 40 | 1 | - |
| Online: biltegiratze deposituak. API 650 (II): Haize eraztunen diseinua, kanpo prezioaren bidez egiaztatzea, sabai finkoaren diseinua, sabai flotagarriaren diseinua | Ingeniaritza Mekanikoa | 40 | 0 | - |
| Online: biltegiratze deposituak. API 650 (III) | Ingeniaritza Mekanikoa | 40 | 0 | - |
| Eraikinen ikuskaritza energetikoa | Energia | 15 | 1 | - |
| Termografia | Energia | 12 | 6 | 9,2 |
| Ekipo elektrikoen mantenuaren inguruko oinarriak | Energia | 18 | 3 | - |
| In-Company: Ingeniaritza arloko komunikazioa hobetzea. Inpaktua sortzeko komunikazio teknika eta estrategiak: Bilerak, negoziazioak, aurkezpenak eta hitzaldiak | Zeharkako eskumenak | 12 | 12 | 8,8 |
| Workshop: 4.0 industrian digitalizazioa kudeatzea (2. Edizioa) | | 16 | 21 | 8,3 |
| HAZOP analisia: Metodologia eta Jarduerak | Ingeniaritza Mekanikoa | 16 | 15 | 8,2 |
| Segurtasun funtzionala. SIL esleipena eta egiaztapena | Instrumentazioa eta Kontrola | 24 | 6 | - |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Business Intelligence eta Power BI. Zure enpresaren datuak aztertzeko txosten interaktiboak diseinatzea. | Kudeaketa tresnak | 20 | 11 | 9,2 |
| **Ikastaroa** | **Arloa** | **Orduak** | **Inskripzioak** | **Balioespena** |
| Bateragarritasun elektromagnetikoa. | Ingeniaritza Elektrikoa | 8 | 10 | 8,9 |
| On-line ikastaroa: Uren Tratamendua Industria lantegietan | Ingeniaritza hidraulikoa | 40 | 5 | 7 |
| Ikastaroa: SCRUM. Proiektuen kudeaketa arina | Proiektuen kudeaketa | 16 | 18 | 9 |

| Hitzaldiak eta Jardunaldiak | Laguntzaileak |
|---|---|
| Hitzaldia: Zibersegurtasuna Euskadin | BASQUE CIBERSEVURITY CENTRE |
| Energia, munduaren motorra: Iraunkortasunerako bidea | ENCE |
| Hitzaldia: *¿ Hay vida más allá de la tierra?* | EHU / UPV |
| Hitzaldia: *El software de fuentes abiertas y su impacto empresarial* | LANTIK |
| Hitzaldia: Automozio Sektorea. Pisua murrizteko estrategiak | IK4 - AZTERLAN |
| Jardunaldia: Ingeniaritza eta hornidura arloko nazioarteko proiektuetan gatazkak identifikatu eta konpontzea. | HOFSTEDE INSIGHTS<br>FELGUERA IHI |
| Hitzaldia: Elektrizitate merkatuak | IBERDROLA |
| Masterclass: Big data, Power Pibot, eta abar. | MONDRAGON UNIBERTSITATEA |
| Kalitatezko helduarorako prestatzea | IMQ |

| Kanpoko Prestakuntza – Prestakuntza laguntzak | Erakundea |
|---|---|
| Hitzaldia: 3D inprimaketa: Ingeniaritza arloko aplikazioa | DURERO IKASKETAK |
| Mantentze-arloko Ingeniaritzako masterra 2019-2020 (TÜV SÜD Iberia) | TUV SUD |
| Innobideak Prestakuntza. Talento. Talentua bilatu eta mantentzea. | SPRI |
| Industria Eraikinetan Suteen kontrako Babes-instalazioen Diseinu, Mantentze eta Kudeaketan aditua (3. Edizioa) | CGCOII |
| On line IKASTAROA. Enpresan energiaren kontratazioan eta gas zein elektrizitate fakturen optimizazioan aditua. | CGCOII |

| Kanpoko Prestakuntza – Prestakuntza laguntzak | Erakundea |
|---|---|
| Innobideak Prestakuntza: Zaintza lehiakorra, berrikuntzarako funtsezko oinarria | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Negoziazioa. Negoziatzea, arazoak konpondu eta emaitzak hobetzea. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Pertsonak. Erakunde lehiakorretarako konprometitutako pertsonak. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Jabetza intelektuala. Lehiakortasunerako jabetza industrial eta intelektualaren kudeaketa aktiboa. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Negozio eredua. Negozio-ereduaren berrikuntza arrakastaren oinarri gisa. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Kudeaketa ekonomikoa. Kudeaketa ekonomikoa emaitzen kontua baino zerbait gehiago da. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Etengabeko hobekuntza. Enpresa etengabeko hobekuntzara bideratzea. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Berdintasuna. Berdintasuna ez da sortzen, egin egiten da | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Talentua. Talentua bilatu eta mantentzea. | SPRI |
| Zibersegurtasun Ikastaroa: Assessing the Cybersecurity of New or Existing IACS | ISA |
| Innobideak Prestakuntza: Bezeroak. Bezeroek eman ahal digutena. | SPRI |
| Lean Manufacturing prestakuntza. | Lean Institutua |
| Innobideak Prestakuntza: Supply chain: Kudeaketa, hornitzailetik bezeroraino. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Supply chain: Kudeaketa, hornitzailetik bezeroraino. | SPRI |
| Girotze industrialerako instalazioen diseinu, mantentze eta diseinuan aditua (2. Edizioa) | CGCOII |
| Jardunaldi Teknikoa: Etxeak ibilgailu elektrikoaren arabera egokitzea. | SIEMENS |
| STEAM heziketarako ESERO proiektua (European Space Education Resource Office) | EUROPAKO AGENTZIA ESPAZIALA |
| Industria eraikuntza berezien zimendatzeen diseinu eta exekuzioa. ONLINE IKASTAROA. | CGCOII |
| Zibersegurtasun ikastaroa: ISA - Fundamentals Specialist | ISA |
| Aireztatze eta Filtrazio Instalazioen Diseinu, Mantenimendu eta Kudeaketan Aditua. Online ikastaroa | CGCOII |
| Aire Konprimatuko Instalazioen Diseinu, Mantenimendu eta Kudeaketan Aditua. | CGCOII |
| Jardunaldi Akustiko Integrala. Zarataren kontrola | AKUSTIKA INTEGRALA |
| Online ikastaroa. MICROSOFT POWER BI | CGCOII |
| Online ikastaroa. Kontseilua. LEAN OFFICE | CGCOII |
| Online ikastaroa. Kontseilua. Berrikuntzaren Kudeaketa. | CGCOII |
| Siberzone jardunaldia. Aireztatze eta Eraikinen inguruko konponbideak ZEB / EECN 2018 | SIBERZONE |
| ISA – EL IoT bilera teknikoa, datuak eta adimen artifiziala | ISA |
| Autodesk Revit MEP online ikastaroa. | CGCOII |
| BIM online ikastaro kontzeptuala | CGCOII |
| Navisworks Manage online ikastaroa. | CGCOI |

| Kanpoko Prestakuntza – Prestakuntza laguntzak | Erakundea |
|---|---|
| Autodesk REVIT Architecture online ikastaroa | CGCOII |
| Online ikastaroa. Instalazio elektriko industrialen diseinu, mantenu eta kudeaketan aditua | CGCOII |
| Engineers Catalunya jardunaldia. Eraikinen fatxadetan suteak zabaltzearen inguruko arazoari buruzko azterketa. | ENGINEERS CATALUNYA |
| ENGIE jardunaldia: Trantsizio energetikoaren erronka industrian | ENGIE |
| Online ikastaroa. Microsoft Power BI. 2. Edizioa | CGCOII |
| Online ikastaroa. LEAN OFFICE. 2. Edizioa | CGCOII |
| Online ikastaroa. Berrikuntzaren Kudeaketa. 2. Edizioa | CGCOII |
| On line IKASTAROA. Eraikuntza obretako segurtasun eta osasun arloko koordinazioan aditua | CGCOII |
| Online Ikastaroa: Produktu kimikoen biltegiratzea diseinatu, mantendu eta kudeatzeko lanean aditua. | CGCOII |
| Online ikastaroa. Azpiegiturak eta banaketa | CGCOII |
| Online ikastaroa. Egitura metalikoen diseinu eta exekuzioan aditua | CGCOII |
| Innobideak Prestakuntza: Estrategia. Gure asmoak gauzatzea. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Negoziazioa: Negoziatzea, arazoak konpondu eta emaitzak hobetzea. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Ekipoak. Talde-lanari buruzko mitoak eta errealitateak | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Gizartea: Enpresa herritar eredugarri gisa. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza. Berdintasuna. Berdintasuna ez da sortzen, egin egiten da | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Berrikuntza: Zure enpresaren neurrirako berrikuntza. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Emaitzak: Lehiakortasuna, emaitza ekonomikoetatik harago. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Hobekuntza: Enpresa etengabeko hobekuntzara bideratzea. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Zaintza lehiakorra: Zaintza, berrikuntzarako funtsezko oinarria | SPRI |
| Online ikastaroa. Lantegiko diseinu, mantentze, kudeaketa eta banaketan aditua. | CGCOII |
| Industria arloko enpresetako lidergoan aditua izateko online ikastaroa | CGCOII |
| Online ikastaroa: Tentsio ertaineko linea elektrikoen diseinu, mantenu eta kudeaketan aditua. Uhin- babes eta -kalitaterako erreleak. | CGCOII |
| Industria eraikinen zolata diseinu eta exekuzioan aditua izateko online ikastaroa. | CGCOII |
| Industrian Energia Termikoa Sortzen Aditua izateko online ikastaroa | CGCOII |
| Instalazioen Automatizazioan eta 4.0 Industriako Integrazioan Aditua | CGCOII |
| Industria eraikuntzetarako hormigoizko prefabrikatuen diseinu eta exekuzioari buruzko online ikastaroa | CGCOII |
| Industria arloko enpresetako erosketa kudeaketan aditua izateko online ikastaroa | CGCOII |
| Industria lantegietako biltegien eta instalazio logistikoen diseinu, mantenu eta kudeaketan aditua. Online ikastaroa | CGCOII |
| Industria operazioen zuzendaritza ekonomikoko adituaren online ikastaroa. (2. edizioa). | CGCOII |
| SEDICAL jardunaldia: Eraginkortasun energetikoa industria-galdaretan | SEDICAL |
| EFPA finantza-heziketa | EFPA |
| TIA portal eta Siemens automata programagarriekin automatizazioa egiteko online ikastaroa | CGCOII |
| BasquePro – Ekintzailetza proiektuetarako inbertsio-kulturaren sentsibilizazio jardunaldia | BASQUEPRO |
| SODECA jardunaldia | SODECA |

| Kanpoko Prestakuntza – Prestakuntza laguntzak | Erakundea |
|---|---|
| CEPREVEN jardunaldia. PCI araudiaren aldaketak. | CEPREVEN |
| Makinen Segurtasunaren arloko espezialista ikastaroa (TÜV SÜD Academy) | TUV SUD |
| Hozkailu instalazioen araudi berriari buruzko ikastaroa (TÜV SÜD Academy) | TUV SUD |
| Industria instalazioetako lege ikuskaritzei buruzko ikastaroa (TÜV SÜD Academy) | TUV SUD |
| Eraldaketa zentroetako mantenu eta maniobra seguruen inguruko ikastaroa (TÜV SÜD Academy) | TUV SUD |
| Suteen Aurka Babesteko Instalazioen Arautegi berria, 513/2017 ED (TÜV SÜD Academy) | TUV SUD |
| EFAPEL jardunaldia. Konponbide elektrikoak | EFAPEL |
| BIM jardunaldia. Oinarrizko errekerimenduen inguruko lizitazio publikoak | CGCOII |
| Innobideak Prestakuntza: Kudeaketa ekonomikoa. Kudeaketa ekonomikoa emaitzen kontua baino zerbait gehiago da. | SPRI |
| Innobideak Prestakuntza: Innobideak Prestakuntza: Negoziazioa: Negoziatzea, arazoak konpondu eta emaitzak hobetzea. | SPRI |
| EUSKALIT. Kudeaketa aurreratuaren Europako Astea – Lean printzipioak 4.0 kudeaketa eta estrategia sistemetan integratzea: Praktika egokiak bi industria enpresatan | EUSKALIT |

## II ERANSKINA – KULTURA ETA GIZARTE EKINTZAKO XEHETASUNA

| BIZKAIKO INGENIARIEN MUSIKA ELKARTEA |
|---|
| ✓ Bizkaiko Abesbatzen XLVI. Astea, otsailaren 13an, Begoñako Andra Mariren Basilikan. |
| ✓ Bilboko Ingeniarien Eskola Fundazioak ematen dituen INGENIA SARIEN banaketa. Otsailaren 18an, Bilboko Goi mailako Ingeniaritza Eskolako Areto Nagusian. |
| ✓ EHUko Ingeniari graduatuei Diploma banaketa, martxoaren 5ean, Euskalduna Jauregian. |
| ✓ Kataluniako Coral dels Enginyers Industrials abesbatzarekin batera emandako kontzertua, San Jose de la Montaña elizan, maiatzaren 3an. |
| ✓ Zendutako kideen aldeko Ingeniarien Meza, maiatzaren 27an, San Jose de la Montaña Elizan (Agustindarrak). |
| ✓ Bilboko Udaleko Kultura Sailak antolatutako 2019ko kontzertu koralak, 6. Barrutia, Bilboko Doña Casilda Parkean parte hartu zuten, ekainaren 7an. |
| ✓ BARTZELONAKO SAGRADA FAMILIA BASILIKAKO kriptan egindako kontzertua, urriaren 4an. |
| ✓ Kataluniako Coral dels Enginyers Industrials abesbatzarekin partekatutako kontzertua, BARTZELONAKO la Verge de la Pau parrokian, urriaren 5ean. |
| ✓ Bartzelonako MONTSERRATEKO basilikan emandako kontzertua, La Escolanía eta beste abesbatza baten emanaldiaren ostean, urriaren 6an. |
| ✓ FAIR SATURDAY ekimenaren barruan antolatutako kontzertu LIRIKOA, Garapenerako ICLI GKEaren alde (Ingeniería para la Cooperación - Lankidetzarako Ingeniaritza). Gizakundearen elizan, azaroaren 30ean. |
| ✓ Gabonetako Ongintza kontzertua, “Of Angels and Archangels” proiektua interpretatuz. Bildutako dirua Parkinson Nervión Ibaizabal ACPAK Elkarteari eman zitzaion. BBK Salan izan zen, abenduaren 1ean. |
| ✓ Bilboko Udalaren Kultura Sailak antolatutako Gabonetako kontzertua. Deustoarrak zortzikoak hartu zuen parte. Elizaren Ama Parrokian izan zen, abenduaren 11n. |